

# 2023-2024 ESKAINZIA BEREZIA

aek

Bidasoko AEK Irungo euskaltegia

## ZER EGINGO DUGU?

Gaiari sakondu eta 4 trebetasunak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamena) lantzeko aukera izango dugu.

## NOLA ARIKO GARA?

Ikastaro bakaltzari izaera ematen dion gaitik abiatuta euskalduntzera eta euskaltasunetik gaiaren muinerako joan-etorri etengabearen ariketara.

## ZER BEHAR DA?

Ikastaroetan izena emateko ez da aurretiko ezagutza berezirik behar. Euskalduntzeko gogoia eta jarrera parte-hartzailea baino ez.

## 1. HIKA TALDEA

Ikastaro honetan euskararen tratamendu informala, hika, landuko dugu; nola forma batuak, hala herri hizkerakoak. Batetik, erabilera arauak, eta bestetik, praktika. Aurrez aurreko saiok izango dira, eta talde-lanean ariko gara.

## 2. EUSK (AHAL) DUNTZE TALDEA

Ikastaro honetan euskaldunontzat aldekoak ez diren eremu soziolinguistikoetan euskaraz bizitzeak dakartzanak aztertu eta horiei nola aurre egin taldean landuko dugu.

## 3. KULTURGINTZATIK ABIAUTUTA EUSKALDUNTZEN

Kultur erreferentziak lantzea euskarazko helduen alfabetatze prozesuaren parte ere bada (HEOC), eta ikastaro honetan horietan sakonduko dugu. Berezi, ondorengo adierazpideak landuko ditugu: musika, bertsolaritza, literatura, antzerkia...

## 5. ALFABETATZE TALDEA

Ikastaro honetan ahozko jarduna idatzizkoa bilakatzen ikasiko duzu, horretarako behar diren egitura eta arauak euskara batuan landuz. Horrek guztiak edozein arlotan euskaraz eroso bizitzeko ballabideak eskainiko dizkizu; hala nola literaturaz gozatu, administrazioarekin harremana izan, hedabideak kontsumitu...

## 4. ZURE OFIZIOTIK ABIAUTUTA EUSKALDUNTZEN

Ikastaro honetan zure lanera egokitutako euskara ikasiko duzu. Zure euskalduntze prozesua zure lanpostuak eskatzen dituen beharrezanetatik hasiko duzu, eta haletan sakonduko duzu.

## 6. MINTZA TALDEA

Ahozko elkarreraginean oinarritzen dugu ikastaroa, eta eguneroko mintza-praktikan aurkitzen ditugun "trabak" eduki bihurtzen ditugu, eta berariaz landu. Azken 6 urteetan formatu honetako bina talde izan ditugu, goizez bata, eta arratsalde bestea.

## 7. IDAZKETA SORTZAILEA

Ikastaro honetan norberetik abiatuta landuko dugu sormena, idatziz, batez ere. Gainerako taldeetan landu bai, baina ekoiztea ezohikoagoa den testu-generoetan murgilduko gara: ipuina, komikia, txistea, poesia, gorazarrea...

Ikastaro hauek guztiak, gainerakoak bezalaxe, Irungo Udalak diruz lagunduko ditu. Informazio gehiago: irun@aec.eus | 943 62 88 34 | Telefono zenbakia (WhatsApp) 688 74 66 33